



## **SAILKATUTAKO ERAIKINAK BIRGAITZEKO ETA ERAIKINAK APAINTEZKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

### **I. SARRERA.**

Herrian zein landa ingurunean gaur egun dauden ondasun higiezinak jasaten ari diren hondamendia eta jendea bizi den eremuko ingurumena kalitatea galtzen era nabarian jasaten ari da; era berean, etxebizitzak urri eta garesti dira. Horrek guztiak, beraz, erakunde publikoen parte hartzea eskatzen du orain arte etxe eta hiri ondare hori mantentzeko eta hobetzeko eskaini zaion arreta eskasa konpontzeko.

Ordenantza honen helburua Administrazio publikoak parte hartzea da, ekimen pribatuari lagunduz, arazoa puntu itzulezinerara iritsi ez dadin. Hori horrela, udalerrian dauden populazio guneak kontserbatzea eta hobetzea bultzatuko da, bota edo berreraiki baino lehen.

### **II. XEDAPEN OROKORRAK.**

#### **1. artikulua.**

1.- Ordenantza hau ezartzeko erabili diren eskumenak eta erregelamendu ahala honako xedapen hauetan daude: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.b) eta 25. artikuluetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Arautegiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan, eta Barrundiako Udalak 2005eko ekainaren 9an onartu zuen Dirulaguntzei eta Laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean.

2.- Ordenantza honen xedea da ondoren aipatzen diren dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura finkatzea, haiek eskuratzeko tratu berdintasuna bermatuz herritarrei:

a) Etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak.

b) Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean monumentu gisa sailkatuta dauden eta kulturako erabiltzen diren eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak.

c) Barrundiako udalerriko eraikinen fatxadak konpontzeko dirulaguntzak.

**2. artikulua.** Udal organo eskudunak, ordenantza honek biltzen dituen baldintzetan, Udalaren kargura ematen duen eta ekonomikoki balioztatu daitekeen edozein laguntza zuzen zein zeharkako da dirulaguntza.

**3. artikulua.** Hona hemen dirulaguntzak emateko arauak:

1<sup>a</sup>.- Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, ordenantza honetan kontrakorrik ezartzen ez bada.



2<sup>a</sup>.- Ezingo dira aldarrikatu aurrekari gisa.

3<sup>a</sup>.- Inoiz ez dute gaindituko aurrekontuaren % 3 (eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarria) 1.2 artikuluan aipatzen diren hiru kasuetan.

4<sup>a</sup>.- Ezin izango da dirulaguntza handitzeko edo berrikusteko eskatu.

### **III. APLIKAZIO EREMUA.**

#### **4. artikulua.**

1.- Etxebizitzak birgaitzeko, ordenantza hau aplikatuko da Barrundiako udalerrian kokatutako eraikinak zaharberritzen direnean, eraikina nagusiki eskatzailearen ohiko etxebizitza gisa erabili bada, eskabidea aurkeztu baino lehenago edota eraikuntza baten erabilera aldatzen denean ohiko etxebizitza izateko bi urte baino lehenago. Betiere baldintza hauek bete behar dira.

a) Eraikuntza tradizionalak izatea, harlangaitz, harlandu eta abarrez eginak, zurezko habe eta zutabeak eta zurezko forjatuak dituztenak.

b) Jarduerak kanpo aldeko fatxadak bere horretan zaintzea, salbu eta zuloak zabaldu edo handitzeko lanei dagozkienak. Fatxadak eraistea onartuko da inoizka, mugen arteko tarteari buruz hirigintzako araudian ezarrita dagoena bete nahi denean, edo egiturazko arazoak direla medio, betiere itxiturari eustea eragozten ez badute. Udal teknikariak txostena eman beharko du lizentzia ematen den unean, eraitsi beharra egiaztatuta dagoela eta egin nahi den jarduketa egokia dela eta birgaitu beharreko eraikinaren balioak errespetatuko direla adieraziz.

c) Birgaitzeaz gain oin berriko handitzea helburu duten jarduketak kanpoan geldituko dira.

d) Jarduketa horien eraginpean dauden etxebizitzak birgaitzearen titularren lehenengo etxebizitza eta ohiko bizileku izatea, eta eskatzaileak udalerrri honetan erroldatuta egotea.

e) Erabilera aldatu eta eraikina etxebizitza bihurtzen denean, nahikoa izango da frogatzea jabeetariko bat, gutxienez, eskabidea aurkeztu aurreko bi urteetan udalerrian erroldatuta egon dela eta ohiko bizilekua bertan izan duela, eta etxebizitza birgaitua ohiko etxebizitza izango dela dioen aitortpena aurkeztu beharko da.

f) Aitorpen bidez adieraziko da eraikin birgaitua ohiko etxebizitza izango dela 15 urtean eta ez dela besterenganatuko epe hori amaitu arte; baldintza horiek betetzen ez badira dirulaguntza itzuli beharko da.

g) Obraren aurrekontua 1.803,04 euro baino gehiago izan beharko da.

2.- Eraikinak apaintzeko lanei dagokienez, ordenantza honen aplikazio eremua ondoko baldintzak betetzen dituzten eta Barrundiako udalerrian dauden eraikin guztietako fatxadak dira:

a) Harlangaitz, harlandu eta abarrez egindako eraikuntza tradizionalak, zurezko habe eta zutabeak eta zurezko forjatuak dituztenak.

b) Jarduketek kanpo aldeko fatxadak bere horretan zaintzea, salbu eta zuloak zabaldu edo handitzeko lanei dagozkienak. Fatxadak eraistea onartzen



da, baldin eta horren helburua hirigintzako araudian xedatutako mugetarako distantzia betetzen bada.

c) Birgaitzeaz gain oin berriko handitzea helburu duten jarduketak kanpoan geldituko dira.

d) Ohiko bizilekuaren baldintza betetzen dutela frogatu beharko dute, aurreko idatz zatian azalduetako moduan.

3.- Monumentu gisa sailkatutako eraikinak birgaitzeari dagokionez, ordenantza hau aplikatuko zaie Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean monumentu gisa sailkatuta dauden eta erlijio kulturako erabiltzen diren eraikin guztiei, eta eskatzaileek ohiko bizilekuaren baldintza betetzen dutela frogatu beharko dute aurreko lerroaldeetan azalduetako modu berean.

## **5. artikulua.**

1.- Ondokoak hartuko dira birgaitze obratzat eraikinaren egitura egokitzeari eta etxebizitzaren bizigarritasunari dagokienez:

a) Eraikinaren egitura egokitzea (oinarriak, zutabeak, habeak, estalkiak, fatxadak finkatzea, eskailerak sendotzea, estalkietako erreteilak).

b) Fatxadak eta beste elementu komun batzuk zaharberitzea (akaberak, iragazgaiztea, pintura, ateburuak, leiho isurkiak, ataria, eskailerak).

c) Instalazioak egokitzea, betiere eraikinaren elementu komunak badira, berokuntzarenak salbu (konponketak, birjartzeak, eta hauen instalazio berriak: ur hotza eta beroa, saneamenduak, elektrizitate eta telebista instalazio komunak, aireztatze eta haizebide instalazioak).

d) Etxebizitza egokitzea, elbarriei etxe barruan erraz mugitzen laguntzeko.

e) Eraikinetako instalazioak eta isolamenduak konpontzea, berritzea eta jartzea.

f) Lurzoruari buruzko Legearen 181. eta 182. artikuluen babesean administrazio espedienteetan emandako aginduen ondorioz nahitaez egin behar diren obrak.

2.- Fatxaden konponketa obratzat zaharberitze lanak hartuko dira; besteak beste, entokatzeak, iragazgaizte lanak eta pintatze lanak.

**6 artikulua.** Birgaitze obra babestuak egitean, bermatu egin beharko da teknika eta egitura aldetik koherenteak izango direla eraikinaren egoerarekin eta egin beharreko bestelako lanekin, honako irizpide hauen arabera:

a) Eraikin batean egiturazko eta eraikuntzazko segurtasun baldintzarik ez bada, elektrizitaterik eta urik ez badu, ez eta saneamendu orokorreko sarerik ere, obrak ez dira babestuko, obretan horiek guztiak jartzen ez badira.

## **IV. ESKATZAILEAK.**

### **7. artikulua.**

1.- Etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte Barrundiako udalerrian kokatutako etxebizitzaren baten jabe diren eta ohiko



bizilekua bertan duten persona fisikoek, baita maizterrek eta bestelako tituluak dituztenak ere.

2.- Eskatzaileek ezin izango diete herri administrazioei, erkidegoko administrazioei, gainontzeko antzeko erakundeei eta dagozkien aprobetxamenduak arautzen dituztenei inongo zorrik izan; hau da, ez zerga betebeharrak, ez kanonak edo kuotak direla-eta zorrik izan. Beraz, zorren bat dutenek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso.

**8. artikulua.** Birgaitutako etxebizitzak erabiltzeko erregimena jabetza edo errentamendua izan daiteke, bai eta bestelako erabilera eta gozamen moduak ere.

## **V. JARDUKETA PROGRAMA.**

**9. artikulua.** Dirulaguntzaren xede diren jardunei erantzuteko, Barrundiako Udalak, bere aurrekontu baliabideen arabera, zenbateko jakin bat kontsignatuko du aurrekontuetan urtero.

**10. artikulua.** Dirulaguntza jaso daitekeen kasu guztietan, dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, aurrekontuaren % 3 izango da.

### **11. artikulua.**

Eskabidea aurkezteko epeari dagokionez, obra lizentziarako eskabidearekin batera aurkeztuko da dirulaguntzarako eskabidea, edo bestela, obra lizentzia ematen edo eskatzen denetik hasita sei hilabeteko epean, betiere obrak amaitu gabe badaude.

## **VI. KUDEAKETA ETA IZAPIDETZEA.**

**12. artikulua.** Dirulaguntza jasotzeko, beharrezkoa izango da frogatzea eskatzaileak eta eraikinak ordenantza honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela.

**13. artikulua.** Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Alkateari zuzendutako eskabidea. Bertan eskatzailearen nortasun datuak, eraikinaren kokalekua, obra mota, aurrekontua, obra gauzatzeko epea eta eskatzen den dirulaguntza agertuko dira.

b) Jabetzaren eskritura edo horren kopia kautotua, eta obrak egin eta dirulaguntza jasotzea galaraziko lukeen kargarik ez dagoela dioen aitortpena, bai eta okupazioa frogatzen duen agiria ere.

c) Obraren aurrekontua, obra egin behar duen kontratistak edo industrialak sinatua. Fakultatibo batek esku hartzea derrigorrezkoa bada, proiektu teknikoa aurkeztu beharko da.



d) Birgaitu beharreko etxebizitzaren edo etxebizitzen jabeak eta etxebizitza edozein tituluren bidez okupatzen dutenek emandako baimena, dirulaguntza eskatzen dutenak beste batzuk direnean.

e) Errolda agiria, eta dena delako etxebizitza gutxienez bi urtean ohiko bizilekua izan dela frogatzen duen agiria.

f) Hamabost urte igaro arte eraikuntza ohiko etxebizitza gisa erabiltzeko eta ez besterentzeko konpromisoa eta baldintza horiek bete ezean dirulaguntza itzultzeko betebeharra azaltzen dituen agiria.

**14. artikulua.** Udaleko zerbitzu juridiko, ekonomiko eta teknikoek egingo dute obraren egokitasunari, balorazioari eta ordenantza honetan ezartzen dena betetzeari buruzko txostena, Udaleko informazio batzorde orokorrak irizpena emango du eta alkateak ebatziko du, beharrezkoa den aurrekontu kreditua ezarriz.

**15. artikulua.** Birgaitzeko etxebizitzaren jabeak edo obraren sustatzaileak jaso dezake dirulaguntza.

**16. artikulua.** Dirulaguntza birgaitze lanak amaitu ondoren jasoko da, fakultatiboak edo lana egin duen pertsonak izenpetutako obra egiaztagiria aurkeztu ondoren, edo faktura aurkeztuta, proiektu teknikorik behar ez denean. Edonola ere, udal teknikariak hirigintzako legeriarekin bat datorren eta lizentziaren baldintza guztiak betetzen dituen adieraziko du txosten batean.

#### **ARAUBIDE IRAGANKORRA.-**

##### **17. artikulua.**

Ordenantza honek indarra hartu aurretik aurkeztutako dirulaguntza eskaerak lehengo ordenantzako araei jarraituz ebatziko dira, betiere, obrak egiteko hirigintza lizentzietan ezarritako epeak betetzen badira.

Indargabetu beharreko ordenantzaren 11. artikuluan ezarritako epean aurkezten diren eskaerak ordenantza horretako araei jarraituz ebatziko dira, betiere honako ordenantza honek indarra hartzen duenetik hiru hilabete igaro baino lehen aurkezten badira.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

Ordenantza honek indarra hartzen duenean indarrik gabe geratuko da 2005eko abenduaren 16ko ALHAOn argitaratutakoa.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza honek indarra hartuko du Udalak hura behin betiko onartu eta testu osoa ALHAOn argitaratzen denean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritako epea igaro eta gero.

Ayuntamiento de **BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)



**BARRUNDIAKO** Udala  
(ARABA)

Ozaetan, 2019ko azaroaren 27an.  
IDAZKARIAK  
Jon Txopitea Zugadi